

# Esker txarreko nafarrok

railean izan da Nafarroako Musika Garaikidearen Festibalaren hirugarren edizioa. Gogoan dut, lehena aurkeztearen harira edo, bestela, horrela gogoratzen dut nik, Mikel Chamizo konpositore eta musika kritikariak txio bat atera zuela honakoa salatuz (2015eko abuztuko 5ean): “X-ren Euskal Elkarte: nafar asko egoten dira beti. X-ren Nafar Elkarte: nafarrak soilik”. Ikusi dut, hori gogoan ez nuen arren, erantzun niola: “Irtenbidea Euskotarren Nafar Elkarte sortzea izan daiteke”. Halere, Chami-zoren kexua ahantzi ez izanak salatzen du ukitu ninduela eta orduz geroztik pentsarazi didala. Arrazoi soziopolitikoak argudia daitezke, esan daiteke nafar elkarte edo erakundeek azpimultzatza izatera salatzen dutela beren burua, subordinazio nolabaitekoa; Nafarroan euskalduntasunaren urria eta jazarria ere aipa daiteke kanpotiko (edo, bakoitzak pertenezia nola bizi duen, ez hain kanpotiko) babesa beharrezkoa izateko. Horiek guztiak ez dute kentzen Mikel Chamizok salatutako desorekaren bidegabea eta kasu anitzetan interesduna ere.

Eroso bizi izan dugu nafar askok oihartzuna non emanen ziguten edukita, geure sare propioak hedatzeaz eta elikatzeaz ezaxolatuta; eta izan ditugunetan (eta azken bi urte hauetan aldeko haizeak jo digu) gogoeta egin behar dugu aski elkarrekikotasunez jokatzeko ari garen.


Eroso bizi izan dugu euskaraz aritzen garen nafar idazleak, geure erakunde publikoek eta gure enpresa ahulek sariak, bekak, bidaia-poltsak eta abar ordaindu ez arren, behar edo nahi izanez gero nora jo izan dugulako, EAEko instituzio literarioek hartu gaituztelako, eremu-aldiak iraun duen bitartean. Nafarroak izan duen utzikeriak besteen esku utzi du herrialdeko letren kalitatea epaitzeko ardura. Nafar



Angel Erro

IDAZLEA

@angelerro



Antton Olariaga

idazleen aitortza, esaterako, Euskadi sariak bezalakoetatik iritsi da. Iaz, konparazio, Iruñeko poeta batek irabazi zuen, eleberri batekin, Eusko Jaur-laritzako Kultura Sailak ematen duen Euskadi Saria, euskarazko modalitatean, eskuratu zuela nabarmentzekoa da. Ez zen hori izan 2016ko Euskadi saria jasotako nafar bakarra. Iruñean egoitza duen Igela argitaletxean Xabier Olarra gipuzkoar nafartuak itzulitako James Joyceren *Ulises* obrak sari horren itzulpengintza modalitatea eskuratu zuen. Gaztelaniazko saiakera atalean Fernando Mikelarena beratarrik saria eskuratu zuen.

Argi ematen du nafar literaturaren legitimazio eta prestigiotze lana Nafarroatik kanpoko erakundeek eskutik heldu dela. Gobernu berriak (Javier Esparzak duela gutxi agindu bezala, 2019an, berak presidentetzara iritsita-koan, euskararen aldeko aurrerapauso guztiak zakarrontzira bota baino lehen) esku hartu nahiko balu, demagun, sariak, bekak edo (euskal kultura esportatzeko) bidaia-poltsak deituta, lan hori guztia beste batekin egin dezan jarrera erosotik aterata, mekanismoren bat asmatu beharko genuke urteetako abegikortasuna eskertzeko. Ez litzateke ideia txarra izaneren euskal kulturarekin zerikusia duenaren halako konfederazio bat, erakunde komunaren bat, finantziario komunarekin hastea. Ez bada hortik jotzen, elkarrekin-eta bikoiztuta amaitzen bagara, batean zein bestean arrantza egiteko aukerarekin, aukera hori ez dezagula bakarrik nafarrok izan. Gogoan har dezagun nola (denok kasuren bat ikusi dugun moduan), are erdarazko nafar sortzaile navarristek ere, antologia/katalogo/erakusketa batean edo, dirua/azpiegitura EAEk jarri izan duenean, ameto ematen dion eta ez duen (egoera kontrakoa balitz ez bezala) txintik ateratzen. ■